



## FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

Sar hitza	1.0
I – Kudeatzailea	3.0
II – Egitura	3.0
II – Onartze, izen emate eta kontratu bukatze baldintzak	4.0
IV – Lan taldea	5.0
V – Haurren egunerokoaren antolaketa	8.0
VI – Osasun jarraipena eta kudeaketa	9.0
VII – Kontratatzeko moldeak	10.0
VIII – Familien parte hartze ekonomikoa	12.0
IX – Fakturazio moldeak	14.0
X – Informazioa eta afixatzea	16.0
XI -Filoué ikerketa	16.0
XII – Eranskinak	17.0

## SAR HITZA

Hurtzaindegia, Ahetzeko herriak kudeatua, 3 urte baino gutxiagoko hurren harrera kolektibo erregular eta noizbehinkakoa segurtatzen du. Izen hau duen egitura honek :

« TTIPITTOAK Harrera Anitzeko Hurtzaindegia » azpiko horien arabera funtzionatzen du :

- 2021eko abuztuaren 30eko 2021-1131 Dekretuaren arabera, ama laguntzaileei eta haur txikien harrera etxeei buruzkoa,
- Familia Prestazioen Kutxa Nazionalak indarrean dituen argibideei, edozein aldaketa aplikagarria delarik,
- Ondoko Funtzionamendu Araudian ezarritakoaren arabera.

## I KUDEATZAILEA

TTIPITTOAK Harrera Anitzeko Haurtzaindegia Phillipe ELISSALDE jaunaren ardurapean dago, Ahetzeko auzapeza, egoitza soziala 1 Mattin Trecu plaza, 64210 AHETZE da. TEL 05.59.41.95.20. Mail : [mairie@ahetze.fr](mailto:mairie@ahetze.fr).

Kudeatzaileak egiturako erabaki administratibo eta finantzario guztiak hartzen ditu.

### ASURANTZA

Kudeatzaileak adierazten du « Groupama » asurantz konpainiarekin kontratu bat izenpetu duela.

Zk° 311579802005

## II EGITURA

### Nortasuna

TTIPITTOAK Harrera Anitzeko Haurtzaindegia. 130 Ostalapea bidea, 64210 Ahetze.

Telefonoa : 05.59.22.08.02.

Helbide elektronikoa: [creche@ahetze.fr](mailto:creche@ahetze.fr)

Egiturak 21 lekurentzako onespina ukan du.

Aldi berean hartzen diren haurren kopurua, zentroaren harrera ahalmenaren %115era iritsi daiteke, baldintza hauek betez gero (egituraren okupazio maila ez da asteko oren edukiaren %100 baino gehiago).

Irekitze ordutegia 7:30etik 18:30era da.

Haur bakoitzaren heltze eta ateratze orenak harrera kontratua eta familiak adierazi beharren arabera finkatuak dira. **Edozein huts egite edo beranta 9:30ak baino lehen jakinarazi behar da**

**Gurasoei galdegina zaie harrera kontratuan jakinaraziak diren heltze eta abiatze orenak errespetatzea.**

Beranta baten kasuan, fakturazio osagarri bat aplikatuko da.

Irekitze egun eta orduak : Egiturak egunero funtzionatzen du, larunbat, igande eta besta egunetan izan ezik. Bi astez hetsia da Eguberrietako eskolako oporren denboran, eta bi astez udan (abuztuko azken 15 egunetan). Salbatoreko zubia ere egiten dugu, eta hetsiak egoten gara Mendekoste astelehenean.

## III – ONARPEN, IZEN EMATE ETA KONTRATU

### BUKAERA BALDINTZAK

Haur guziak hartzen ahal dira haurtzaindegian 3 urte arte, erregulariki, noiztenka edo urgentziaz.

FaLKe finkatu baldintzak errespetatu behar dira, hots, ez da gutieneko presentziarik eskatuko, ez eta gurasoen lan jarduerarik edo idurikorik. Herriko Elkartasun Batzordearen baldintza hauekin lotuko dira (batzordea urtean 2 aldiz bilzen da haurtzaindegiko lekuak esleitzeko eta igurikatze zerrenda bat finkatzeko). Elkartasun Batzordeak alderdi soziala ikertuko du:

- Ahetzen bizi diren haurrak hartuko dira lehentasunez.
- Familien diru sartzeak ikertuko dira lehentasuna familia ahulenei emateko.
- Taldeak orekatu behar dira adinaren eta xoko desberdinen arabera.
- Anai-arrebak ere lehentasunez errezibitzen dira haur zaharrena oraino haurtzaindegian baldin bada.
- Aitzinetikako izen emate dosierraren aurkezpen eguna kontuan hartzen da.
- Zaintza beharrak (egunak eta tenoreak).

Leku bat atxikitzen da, behar izanez gero, haur hauentzat:

- Urritasun bat duten haurrentzat
- Jendarteratze bidean edo lan bila diren familietako haurrentzat

Lantalde pedagogikoak egoera hauei kasu eginen die, eta aitzinetik harrera proiektu pertsonalizatua gogoetatuko da eta plantan ezarriko.

Aitzinetikako izen ematea

Gurasoek aitzinetikako izen ematea eginen dute doakion orria betez; haurtzaindegian edo Herriko Etxearen webgunean atzeman daiteke orria. Dokumentua e-postaz igortzeko edo eskuetan uzteko data da kontuan hartuko igurikatze zerrendan izena emateko.

Sortzekoak diren haurrentzat, aitzinetikako izen emateak haurdunaldiko 3. hilabetea baino ez dira egiten ahalko. Familiek haurdunaldi deklarazioa ukan behar dute.

Bizileku frogagiria galdutako da aitzinetikako izen emate galdea osatzeko.

#### Harrera motak eta harrera tokiak:

Ttipittoak Harrera Anitzeko Haurtzaindegia helburua da 2 hilabete eta erdiko eta 3 urte arteko haurren errezibitzea, egunez. Harrera mota bat baino gehiago proposatua da:

- Harrera erregularra: haurrak ezagutzen dira eta haurtzaindegian izena ematen dute gurasoekin finkatu kontratu baten arabera, oreneko prezio finkoan. (Kontratu erregularra). Urtero bi kontratu denbora badira: urtarrilaren 1etik agorrilaren 31ra eta irailaren 1etik abenduaren 31ra. Egitaraua aldakorra balitz, erreserbatu orenak idatziz planifikatu behar dira hilabete bat aitzinetik.
- Noiztenkako harrera: haurtzaindegian haurra ezagutua da eta bere familiaren beharren eta haurtzaindegia posibilitateen arabera errezibitua da.
- Ez da hilabetekako kontraturik (Noiztenkako izen emate fitxa).
- Urgentziazko harrera: Harrera mota hori haurtzaindegira sekula etorri ez diren haurrentzat da, urgentziazko egoera batek haurtzaindegian errezibitua izateko beharra eragiten duelarik. (Urgentzia soziala edo AHBren galdea, adibidez).

Herritik kanpoko harrera egiten da harrera berezi batzuetarako baldintzen arabera. (IKus IV. kapitulua – Onarpen baldintzak).

#### Izen ematea

Harrera kontratu bat izenpetzen da haur bakoitzarentzat. Kontratuak zehazten du:

- haurtzaindegian ibiltzeko erritmoa eta iraupena
- Familiaren parte hartzea zenbatekoa izanen den. (ikus VII. artikulua)

Aldaketa oro geraturik, harrera kontratu berria eginen da.

Haur baten izen ematea behin betikoa izanen da dosierra osoa izanen delarik. (ikus ERANSKINETAN aurkeztu beharreko dokumentuak)

## IV - LANTALDEA

Hautzaindegiko zaintza-araudiaren arabera profesional bat behar da ibiltzen ez diren 5 haurrendako eta profesional bat ibiltzen diren 8 haurrendako.

Hona taldearen osaketa:

- 1 lehen haurtzaroko zuzendari, haur ttipien hezitzailea
- 3 puerikultore laguntzaile,
- 3 lehen haurtzaroko heziketa laguntzaile
- 1 garbiketa egile (bazkaria, xuriketak, egoitzaren garbiketa)
- 1 erreferente osasunerako, orotako medikua (4 oren hiru hilabetero)

### Zuzendaria

Zerbitzuen zuzendari nagusiaren eta hautetsi erreferenteen ardurapean, eginkizun hauek betetzen ditu:

- Enplegatzaileari hartzaindegiaren funtzionamenduaz kontu ematea,
- Hartzaindegiaren kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa segurtatzea,
- Hartzaindegiko proiektua eta funtzionamendu araudia proposatzea,
- Dokumentu horiek plantan ezarriko direla eta eguneratuko direla zaintzea,
- Zuzendaritza funtzioaren jarraipena antolatzea,
- Funtzionamendu-araudia eta hartzaindegiko proiektua afixatzea,
- Urgentziatzko zenbakiak eta protokoloak afixatzea,
- Aterabideen mapa,
- Eskudun diren aginpideei istripu oro edo egituraren aldaketa oro jakinaraztea.

### Langileei begira:

- Langileen kontratatzean parte hartzen du,

- Ordutegiaren finkatzea eta arduradun-ratioez arduratzea,
- Hautzaindegiaren proiektuaren arabera bakoitzaren eginkizunak finkatzea,
- Talde-lana animatzea,
- Lantaldeak sostengatzea, haien lan-baldintzei eta laneko osasun araubideari erne egotea,
- Formakuntzak koordinatzea,
- Langile berriak laguntzea haien lanpostu berrian.

#### **Familiei begira:**

- Familien harrera antolatzea eta haurren onartzeko eta taldeetan banatzeko erabakian parte hartzea
- Familien eta lantaldearen arteko harremanaren kalitatea bermatzea hirugarren parte gisa,
- Haurren segurtasuna eta harreraren kalitatea bermatzea,
- Higiene-protokoloak gauzatzen direla zaintzea,
- Mediku-protokoloak plantan ezartzen direla zaintzea,
- Haur bakoitzaren dosierra eguneratzea eta eguneroko presentzien idaztea erregistroan, kontrol bisitetan erakutsi beharko dena.

#### **Partaideei begira:**

- Partaideekin harremanetan sartzeko eta harremanetan egotea.

Harrera Anitzeko TTIPITTOAK Hautzaindegia Alexandra Sajdak anderearen ardurapean da; hau haur ttipien hezitzailea eta lehen haurtzaroko haur ttipien zuzendaria da. Falta delarik, zuzendaritza funtzioaren jarraipena 3 puerikultore laguntzaileek segurtatzen dute, hala nola Céline Capdevielle, Aline Demay eta Christelle Royeau andereek, edo zuzendariak ordezkariak eman pertsona orok.

Hautzaindegiak praktika profesionalen azterketa mementoak antolatzen ditu haurren zaintzaz arduratzen diren taldeko kideentzat. Memento horiek honela iragaten dira:

- Profesional bakoitzak urtean sei oren baditu gutienez, hots, bi oren lau hilabete guziez.

- Praktika profesionalen azterketa saioak iragaten dira haurrak ez direlarik hartzaindegian.
- Praktika profesionalen azterketa saioak animatzen dituen pertsona ez da lantaldeko kidea.
- Praktika profesionalen azterketa saioetan ez daitezke hamabost profesional baino gehiagoko taldeak bil.
- Parte hartzaileak eta animatzailea engaiatzen dira trukaketen konfidentzialtasuna errespetatzera.

Osasunaren eta harrera inklusiboaren erreferentearen eginkizunak hauek dira:

- Hartzaindegiko zuzendaritza eta lantaldea informatzea, sensibilizatzea eta aholkatzea haur ttipien osasunari eta harrera inklusiboari buruz,
- Profesionalei protokoloak aurkeztea eta esplikatzea,
- Haurren egokitzapen, ongizate eta garapenerako eta haien beharren errespetatzeko beharrezkoak diren neurriak plantan ezartzeko laguntza ematea.
- Urritasun bat, eritasun kroniko bat duten edo artak edo arreta berezia behar duten haurrak hartzeko beharrezkoak diren neurriak plantan ezartzen direla bermatzea. Karia horretara, profesionalak laguntzea HPI baten ulertzeko eta plantan ezartzeko,
- Profesionalen osasun heziketa eta osasuna sustatzeko ekintzak bermatzea,
- Arduradunarekin lankidetzan lanjerean diren edo izan daitezkeen haurrak identifikatzea, informazio kezkarriak tratatzeko departamenduko testuinguruan, eta egoera horietan ukan beharreko jokamoldeei buruz informatzea,
- Protokoloen apailatzen parte hartzea,
- Bere eginkizunen betetzeko beharrezkoa iduritzen zaionean, eta gurasoen baimenarekin, bere ekimenez edo hartzaindegiko arduradunak hala galdaturik, haurra ikertzea, beharrez, mediku batengana igortzeko,
- **Medikua izanez geroz**, haurarentzat kolektibitatean hartua izateko kontraindikaziorik ez dela egiaztatzen duen ziurtagiria ematea.



## V- HAURRAREN EGUNEROKOAREN ANTOLATZEA

Haur bat haurtzaindegian hartu aitzin egokitze-aldia egingen da, haurraren eta gurasoen arteko bereiztea prestatzeko.

Gurasoek haurra garbia ekarriko dute, jantzia eta gosaldia. Haurraren aldatzeko arropak hornitzen dituzte (azpiko jantziak eta jantziak, haurraren izenarekin gainean). Haurtzaindegiak xataarrak eta higieine produktuak hornitzen ditu. Gurasoek ez baldin badute nahi haurtzaindegiak proposatu marka erabiltzea, beharko dituzte haien produktuak hornitu, harrerak iraunen duen denbora osorako.

Haurrak bere ttuttua ekartzen ahal du edo trantsizio objektu oro (ñuñua), hau ez baldin bada beste haurrentzat arriskutsua. (Higieinea eta segurtasuna).

**Ezin da joiarik** ukan soinean. Hori ez balitz errespetatua, haurtzaindegia ez da erantzule izanen. Gauza bera betaurrekoak andeatzean edo galtzean, edo haurtzaindegira ekarri jostailu oro galtzean.

Bazkaria eta askariak haurtzaindegiak hornitzen ditu kanpoko hornitzaile baten bidez; honek zirkuitu laburrak eta janari biologikoa lehenesten ditu. Edari gisa ura emanen da. Nagusiki haur-esne irinez elikatzen diren adin apaleko haurrentzat haurtzaindegiko haur-esnea proposatuko zaie gurasoei (1. adineko esnea). Gurasoek nahi balute etxean erabiltzen duten esnearekin segitu, hornitu beharko dute.

Gurasoek bularra ematen segitu nahi balute, familiek esnea hornituko dute, zuzendariarekin finkatu barne protokoloaren arabera, eta haurtzaindegiko osasun erreferenteak baimena eman ondoan.

Haurtzaindegiak botatzeko xataarrak hornitzen ditu.

Ateraldiak egin daitezke gurasoen baimenarekin bakarrik (ikus ateraldietarako protokoloa).

Gainera, gurasoek beharko dituzte haien abisatzeko beharrezko argibideak eman larrialdi batean gertaturik: laneko zenbakia, etxekoa, etxeko medikuarena, etab. Beharrez, argibide horiek eguneratu behar dituzte. Gurasoek haurraren laguntzera eta xerka jinen den pertsona helduaren izena ere emanen dute eta haien telefono zenbakia eta nortasun agiriaren kopia. Dokumentu horretan aipatua ez den beste pertsona ororentzat: gurasoek idatzizko eta ahozko baimena eman beharko dute izen ematean egin molde berean.

Asurantzak: Bere erantzukizun zibila engaiatua balitz, haurtzaindegiak asurantza kontratu bat hartzen du, eta honek zehazten ditu errezibitzen dituen haurrek egin edo ukan ditzaketan kalteetarako garantiak.

Zauriak balira, haurtzaindegiko asurantza gizarte-erakundeen (gizarte segurantzak, mutualitatea) zerbitzuen osagarri gisa erabiliko da.

Haurtzaindegira heldu diren haurren anai-arrebak gurasoen ardurapean dira, eta ez dituzte kanpoko edota barneko ekipamenduak neholara ere ez erabili behar.

## VI- OSASUN SEGIMENDUA ETA OSASUNAREN KUDEAKETA

Onartua den haur bakoitzarentzat zuzendariak segurtatzen du guraso-eskudantzia dutenek dokumentu hauek ematen dituztela:

- Bi hilabete baino guttiagoko mediku-agiri bat, haurra kolektibitatean hartua izateko kontraindikaziorik ez dela egiaztatzen duena, haurtzaindegian onartua denean edo berantenez 15 egun berantago ematekoa.
- Txertoak eginak direla egiaztatzen duten dokumentuen kopia.

Dokumentu horiek atxikitzen dira haurraren harrera-kontratuaren bukaera arte.

Haurtzaindegiko mediku zerbitzua orotako mediku batek bermatzen du. Honek ditu haurren sartzea, kanporatzea eta berriz sartzea erabakitzen.

### **Haurtzaindegian jakinarazi behar da haurrak etxean ukan bulta txar edo eritasun oro, baita ere etxean eman tratamendu oro.**

Goizean ekarri haurrak usaiaz kanpoko sintomak balitu, zuzendariak erabakiko du haurra egunerako hartu ala ez. Zuzendaria hor ez denean, zuzendaritza-funtzioa bermatzeko izendatu puerikulture laguntzaileak haurtzaindegiko osasun erreferentea abisatzen du eta honek erabakiko du haurra hartu ala etxera igorri behar den.

Etxeko medikuak haurra ikusi baldin badu, zuzendariak medikuak atera ondorioak galdutuko ditu. Tratamendu antibiotiko bat behar izanez geroz, otoi, galda zure medikuari tratamendua bi alditan hartua izateko agintzea, erran nahi baita goizean eta arratsean.

Halaber kremen kasuetan: zure haurrari ur-oreak (Eryplasten gisakoak) baizik ez zaizkio ezarriko haurtzaindegian, salbu patologia berezi bat balu, hiru hilabete baino guttiagoko ordenantza batekin.

Haatik, langileek parasetamola ematen ahalko dute indarrean den protokoloa aplikatuz. **Kontraindikaziorik ez dela erakusten duen ordenantza eman beharko zaio zuzendariari zure haurra haurtzaindegian sartu orduko.**

Eritasun kroniko bat ukanez geroz (asma edo hazkurri alergia), HPI bat (Harrera Proiektu Indibidualizatua) plantan ezarriko da zure haurraren etxeko medikuaren eta haurtzaindegiko osasun erreferentearen artean. Neurri konkretuak esplikatuko dizkizugu eta profesionalak formatuko dira protokoloaren arabera.

Eritasun kutsakor bat gertatuz geroz (adibidez, gastroenteritisa) edo zure haurraren egoeraren arabera, zuzendariak haurra aldi bateko kanporatzen ahalko du hartu neurria zehaztuz. Indarrean den eta osasun erreferenteak eguneratu protokoloaren arabera egingen du.

Haurrak dieta berezi bat edo hazkurri alergia bat ukanez geroz, zuzendaria segidan jakinean atxiki behar da.

HPI bat plantan ezarriko da gurasoek apairuak hornitzeko gisan (barne protokoloaren arabera). Gurasoek ez baldin badute HPIrik ematen, zuzendariak eta langileek ez dute etxeko apairurik onartzen ahalko.

Azkenik, familia ez delarik hor, hartzaindegiko osasun erreferenteak eta zuzendariak urgentziatzko neurriak hartzeko ahalmena dute. Horretarako, gurasoek behar dute izenpetu izen emate dossierrean den ospitaleratze baimena. (Eranskina)

## VII – KONTRATU MOLDEAK

### 1) Harrera erregularra

Harrera kontratu bat izenpetzen da familia bakoitzarekin, bere zaintza beharren arabera eta haurtzaindegia ahala arabera. Kontratua oren kopuruaren arabera egiten da, eta haurra haurtzaindegian ibiliko den erritmoa eta iraupena finkatzen da. Horrela, finkatuko da hilabetean zenbat denboraz etorriko den haurtzaindegira bana beste.

Kontratua denboraldi bakoitzean berrikus daiteke (2 aldiz urtean), familiak galdaturik eta libro diren lekuen arabera. Familiak FaLKeko zerbitzuei jakinarazi behar die haien egoeraren aldaketa oro, izan dadin familia edo lan egoera. Baliabide oinarria arabera aldatu daiteke laguntzen kalkulatzeko; haurtzaindegiko zuzendaritzari ere jakinarazi beharko zaio. Zuzendariak kontratuaren aldatzeko eskubidea du hau ez balitz errespetatua.

Kontratuaren aldaketa horiek (tenoreak, prezioak, etab.) kontratuaren zenbatekoa aldatuko dute.

Hilabetekako kontratua familiarekin hitzartzen eta idazten da, haurra haurtzaindegian egonen den denborarako eta familiaren beharren arabera: harreraren eguneroko oren kopurua, astean erreserbatu oren kopurua, hilabete kopurua. Erreserbatu lekuaren printzipioan oinarritua da, eta aplikatzen da haurra haurtzaindegira etortzeko erritmoa eta epea edozein izanik ere. Ordu kopuru baten arabera finkatuko da. Erreserbatu tarte oro ordainduko da. Kontratu guztiak oren erdiko tarteka eginak dira eta kalkulatuak.

Kontratu bakoitza apailatzean, familiak zuzendaritzari idatziz jakinaraziko dio finkatu denboraldirako hartuko duen opor egun kopurua. Haurra oporrenatik faltatuko den aldi guzietarako idatziz jakinarazi behar da 1 hilabete aitzinetik. Aitzin-abisu epe hori ez balitz errespetatua, haurraren falta izatea ez da faltatze egun justifikatu gisa kenduko.

Kontratuaren bukaeran, opor-egun kopurua ez baldin bada osoki hartu, familiari faktura berria igorriko zaio ordaintzekoarekin. Haurra falta izan den egun kopurua handiagoa baldin bada, ez da kenketarik egingen.

Haurraren partitzea edo kontratua haustea: gurasoek harrera erregularrean edo irregularrean izena emana duen haurraren partitzea hilabete bat lehenago idatziz jakinarazi behar diote zuzendariari.

Sekula ez balitz aurreikusi epean jakinarazi, gurasoei beren haurraren lekuari dagokion prezio finkoa eskatuko zaie. Kontratua aitzinetik hausten balitz, hilabeteko prezioaren gibel-ondoriodun kalkulua eragingen du.

Edozein gisaz, hartzaindegiak haurren tokia berreskuratzen ahalko du seinalatua ez den 8. huts egite egunaren ondotik, familia gutunez informatu ondoan.

## 2) Harrera noiztenkakoa eta irregularra

Noiztenkako harreraren kariatara haurra errezibituko da hartzaindegiaren ahalen arabera.

Gutienez 2 oren segidan beharko da utzi haurra. Erreserba usaiako maneran egiten da, aitzineko astean. Hastapenean erreserbatu tenoreak aldatzeko, gurasoek zuzendariari jakinarazi behar diote berantenez 48 oren lehenago. Aldaketa ez baldin bada epe horretan seinalatu, galdatu erreserba fakturatuko da eskatu erreserbaren arabera. Prezioak kalkulatu dira harrera erregularren oinarri berean. Beraz, noiztenkako kontratua egiten da dagokion izen emate fitxaren bidez. Noiztenkako kontratua ezin izanen da sistematikoki kontratu erregular bihurtu. Eskatera hori Herriko Etxeko lekuen esleitze batzordeari aurkeztu beharko zaio eta honek ikertuko du.

Harrera irregularren bidez ordutegi erregularra ematen ahal ez duten gurasoen haurrak hartzen ahalko dira. Horretarako, familiak izena ematen du oren kopuru baterako hilabetean, eta egunak idatziz erreserbatzen ditu 1 hilabete aitzinetik.

## 3) Urgentziazko harrera

Harrera mota hori hartzaindegira sekula etorri ez diren haurrentzat da, gurasoek "urgentziazko" harrera behar dutelarik. Urgentzia soziala izan daiteke edo AHBko zerbitzuek galdatu urgentzia. Familiaren baliabideak ez baldin badira ezagutzen, urtero finkatu prezio finkoa aplikatuko da, honela kalkulatu: aitzineko kontu aldian fakturatu familien parte hartzearen zenbateko osoa zati aitzineko urtean fakturatu akta kopurua. Hau harrera bukaeran ordainduko da.

## 4) Herrikanpoko haurren harrera

Ondoko herrietako haurrak errezibitzeko parada ematen du, ez dira lehentasunezkoak eta gelditzen diren lekuen arabera hartzen dira. Haien harrera eta prezio moldea aitzinetik aurkeztu kontratuen gisa egiten da.

## VIII – FAMILIEK ORDAINDUKO DUTENA

Hilabeteko prezio finkoa familiaren baliabideen eta osaketaren arabera aldatzen da eta familiako haur kopuruaren arabera indar tasa aldakorrari dagokio, urteko behemugaren neurrian, ehuneko hauen arabera:

Haur kopurua	2022. URTEA	2023. URTEA	2024. URTEA
1 haur	% 0,061	% 0,0619	% 0,0619
2 haur	% 0,0516	% 0,0516	% 0,0516
3 haur	% 0,0413	% 0,0413	% 0,0413
4 haur	% 0,0310	% 0,0310	% 0,0310

Orenko prezioa kalkulatzeko moldea:

*Adibidez, familia batek 3 000 €-ko irabaziak baldin baditu hilabetean*

*$0.0619 / 100 \times 3000 = 1,85€ / \text{orena}$ .*

*35 orenko presentziarako astean:  $4 \text{ aste} \times 35 \times 1.85 = 259 € \text{ hilabetea}$ .*

- Familiar elbarritasun bat duen haur bat balitz haur elbarrituen heziketarako dirulaguntza duena (ez balitz ere haur hori haurtzaindegian errezibitua), justu-justua behereko tarifa aplikatu daiteke (neurri hori aplikatzen da familian den haur bakoitz eta elbarritasun bat duten bakoitzean).
- Behemugako prezioa aplikatzen da Haurrendako Laguntza Sozialak geriza-familian ezarri haurrentzat eta ez zerga agirik ez lansari agiririk ez duten pertsonentzat (biziki ahulak diren familiak, zeinentzat laguntza soziala gomendatua baita).

Familiari galdegiten zaion parte hartzea finkoa da, eta horren barne da haurrak haurtzaindegian iragaten duen denbora, baita ere apairu nagusiak eta garbitasun artak. Ez da ez kenketarik ez gehigarri onartuko bazkari, askari, xatar eta higiene produktueterako.

“FaLKeK dirulaguntza bat ordaintzen dio haurtzaindegiari, familiei eskatzen zaien parte hartze ekonomikoa osatzeko.”

Oren gainditzeak (finkatu kontratuaz kanpoko oren gehigarriak) oren erdiko tarteka fakturatuak dira familia bakoitzari doakion oren tasaren arabera.

Tarifak urte guzietz berrikusten dira, urtarrilaren 1ean eta irailaren 1ean.

Kontuan hartzen diren baliabideak (N-2) familia laguntzenak dira (apalmendua aitzineko irabaziak). FaLKeo hartzaileek argibide hori lortu dezakete FaLKe esku uzten duen sistema telematikoaren bidez. Eta MSArean hartzaileek estranet sistemaren bidez lortu dezakete argibide hori.

Kontratua apailatzean familiek izenpetuko dute baliabideen kopia bat atxikitzeke baimen galdea (ERANSKINAK).

“Familiak funtzionamendu-araudi hau onartzean haurtzaindegiak CDAP (partaideek hartzaileen dosierriari so egitea) datuak kontsultatzea onartzen du eta haurraren administrazio-dosierrean CDAPko pantailako kopiak atxikitzea oreneko tarifa kalkulatzeko.

Informatikari, fitxategiei eta askatasunari buruzko 1978ko urtarrilaren 6ko legearen arabera, oroitarazten dugu argibide horien kontsultatzearen kontra egin daitekeela, idatziz adieraziz. 2018ko maiatzaren 28az geroztik indarrean dagoen Datuak Babesteko Araudi Nagusiaren (DBAN) arabera, familiek haiei buruzko informazioak eskuratzeko, zuzentzeko eta kontra egiteko eskubidea dute. Eskubide hori noiznahi balia dezakete.”

Sistema telematiko horiek erabilezinak balira, hona zer dokumentu aurkeztu behar den gurasoen parte hartzearen kalkulatzeko:

- N-2 urteko zerga agiria edo zergarik pagatzen ez dela erakusten duen agiria; kudeatzaileak kopia bat atxikiko du,
- FaLKe ezagutzen ez dituen familientzat, zerga agirian agertzen diren apalmendu aitzineko lansariak eta beste irabaziak dira kontuan hartuko. Beste zergapeko irabazi guztiak gehituko dira (adib.: higiezin kapitalen irabaziak, lur-funts irabaziak, baita ere oren gehigarriak eta lan istripuetarako eta laneko eritasunetarako eguneko ordainsariak, partez zergapekoak ez izanik ere (ikus gutun zirkularra, zerbitzu bakarraren hornitzea, Familien Laguntza Kutxa).

Baliabiderik gabeko familientzat, behemugako prezio bat kontuan hartuko da urte hastapen guzietz. FaLKe du emanen.

Gainera, zehaztua da ez dela prezio mugarik aplikatuko, ez baita nahitaezkoa. Beraz, FaLKari jakinarazi baliabideak dira kontuan hartuko, edo horien eskasean, zerga agiriko zenbatekoa.

Aldizkako bizitegian diren haurrentzat: harrera-kontratu bat egiten da guraso bakoitzarentzat eta prezioa bereiz kalkulatu da guraso bakoitzarentzat (bakoitzaren irabazien eta familia egoeraren arabera).

## IX- FAKTURAZIO MOLDEAK

Fakturazioaren egiteko oreneko tarifa aplikatuko da, gurasoek jakinarazi egiazko beharren arabera, harrera-kontratuan idatziko da edo noiztenkako harreraren kasuan, prezioa idatzia den dokumentuan.

Kontratuak hilabetekakoak dira haurraren harrera denboraren arabera.

Hurtzaindegiko taldeak eskuz idazten du familien heltzeko tenorea:

- Goizetan familiak hurtzaindegiko interfonoan jotzen duen mementoan,
- Arratsean, partitzeko tenorea idatziko da familiei transmisioa egin ondoan.

“Familien Laguntza Kutzak haur ttipien harrera egituretako kudeatzaileei eman dirulaguntza publikoak haurren egiazko presentzia orenetan oinarrituak dira partez. Oren horiek fidagarriak izan behar dira FaLKe eman dirulaguntza publikoak finantzamendu zuzenaren arabekoak izateko.

Ondorioz, kudeatzaileak artoski zaindu behar du oren horiek behar bezala bilduak direla. Familiei galdegiten zaie hurtzaindegiko zuzendariari jakinaraztea igorriko zaien egiazko presentzia orenetan atzemanen lituzketen akatsak. FaLKe kontrolak egin ditzake.”

Gorago erran bezala (VIII. kapitulua), oren erdi gehigarriak fakturatuak dira (kontratuaz kanpo direnak). Hasi oren erdi oro ordainduko da.

Onartu kenketak kontratutik kanpo:

- Hurtzaindegia salbuespenez hetsi behar balitz (3 pedagogia egun barne izan daitezke taldearentzat)
- Haurraren ospitaleratzea
- Zuzendariak edo osasun erreferenteak haurra kanporatzea barne protokoloaren arabera (harreran atzemanen duzu)
- 3 egun baino gehiago irauten duen eritasunarengatik, mediku agiria aurkeztuz geroz (falta epea 1. egunean hasten da eta ondoko 2 egunak ere barne dira).

Kenketa horiek familiaren hilabeteko parte hartzearen arabeko oreneko tarifyan oinarritzen dira.

Gainera, zehazten da haurraren 1. egokitze orena ez dela fakturatuko.



Gorago erran bezala (VII. kapitulua), haurra oporreatatik faltatuko den aldi guzietarako idatziz jakinarazi behar da 1 hilabete aitzinetik. Aitzin-abisu epe hori ez balitz errespetatzen, haurraren falta izatea ez da faltatze egun justifikatu gisa kenduko. Kontratua bururatzean, haurra falta izan behar zen egun guziak ez baldin badira hartuak izan, ordaintzekoa fakturatuko zaio familiari. Haurra falta izan den egun kopurua handiagoa baldin bada, ez da kenketarik egingen.

### Fakturazioa eta ordainketa

Hilabeteko faktura egiten da familia bakoitzarentzat. Ordainketa egin daiteke:

- Kentze automatikoz (ikus zuzendaritzarekin),
- Txekez, Altxor Publikoaren izenean edota etxe-zerbitzu txekez (baliozkoak),
- Sos idorrez, xehea prestatuz. Ez da xehea itzultzeko manerarik.

Ordainketarako epemuga fakturan idatzia da.

Ez zuzendaritzak ez Herriko Etxeak ez dute ordainketarik onartuko kobratze epea pasatu ondoren. Ordainketa zuzenki Donibane Lohizuneko Altxor Publikora egingen da:

SGC, Chauvin Dragon karrika, 17, 64500 DONIBANE LOHIZUNE, 05.59.26.05.46.

## X – ARGIBIDEAK ETA AFIXATZEAK

Gurasoek parte hartzen dute beren haurraren haurtzaindegiko harreran eta eguneroko bizitzan, egokitze aldiko lehen asteetan etorri, eta eguneko memento garrantzitsuetan. Haien plantan ezarri bilkuretan parte hartzen dute (argibide bilkurak, hitzaldiak, gurasoen kafea...). Urte osoan antolatutako jardueretan aktiboki parte hartzen dute (ateraldiak, bestak, urtebetetzeak).

Gurasoek araudi honen baldintzak errespetatu behar dituzte, segurtasun handiena bermatzeko baizik ez baita egina. Araudi hau aldatzen ahalko da.

Ohar, eskabide edo iradokizun oro lehen haurtzaroko zuzendariari jakinari behar zaio, eta hark hierarkiari aipatuko dio.

Beharrez, pedagogia proiektua haurtzaindegiko harreran afixatua da. Argibide garrantzitsu oro jakinarazia da edo e-postaz edo harrerako arbelean afixatuz.

## XI- FILOUÉ INKESTA

Zure haurra uzten duzun hartzaindegiak Filoué (HTHEren erabiltzaile diren haurren fitxategi lokalizatua) inkestan parte hartzen du. Familien Laguntza Kutxa Nazionalak (FaLK) hartzaindegiaren kudeatzaileari galdatzen dio hartu haurrei buruz argibide fitxategi baten transmititzea: adina, bizilekua, gurasoen hartzaile zenbakia edo gizarte segurantzako araubidea gurasoek ez baldin badute FaLK dosierrik, eta harrera moldea: oren kopurua, fakturatzea.

Datu horiek estatistikak egiteko baizik ez dira erabiliko: anonimo eginen dira FaLKari igorri aitzin.

Haien webgunean atzemanen duzu operazio hau xeheki: [www.caf.fr](http://www.caf.fr) (ikerketak eta estatistikak sailean <http://www.caf.fr/presse-institutionnel/recherche-et-statistiques/filoue>).

Gainera, helbide elektronikoa batera idatz dezakezu: [filoue.cnafnaf.fr](http://filoue.cnafnaf.fr). Funtzionamendu araudi hau izenpetzean, datu pertsonalak FaLKari transmititzea onartzen duzu haur ttipien harrera egituretan harrera egiten zaien publikoei buruzko estatistikak egiteko.

## XII- ERANSKINAK

- 1) Arta protokoloa eta urgentziazko egoera
- 2) Eritasun kutsakorren protokoloa
- 3) Haurrarentzat tratu txar edo lanjera susmo protokoloa
- 4) Segurtasun protokoloa ateraldietan

### Haurra onartua delarik eta denboraldiaren bukaera gabe eman beharreko dokumentuak

- Aitzinetikako izen emate fitxa, e-postaz edo eskuetan uztekoa (dokumentua uzteko eguna lekuko)
- Bizileku frogagiria aitzinetikako izen emate fitxari loturik

Izen ematea ontzat emana dela jakitean:

- Familiako liburuxkaren fotokopia osoa (gurasoak/haurrak)
- FaLKeo hartzaile zenbakiaren fotokopia
- Erantzuletasun zibil asurantzia agiria
- N-2 urteko zerga agiria edo kontratu denbora osoan FaLKaren bidez baliabideak ikusteko eta atxikitzeko baimena
- Txertoen egutegi eguneratuaren fotokopia

Egokitzapen aldiaren bukaera gabe:

- Haurra argazkitan hartzeko/filmatzeko baimena
- Argazkien argitaratzeko baimena
- Ateraldietarako baimena
- Makillatzeko baimena
- Haurtzaindegiak hornitu xataarrak eta esnea erabiltzeko baimena
- Artatzeko baimena
- Parazetamola emateko kontraindikaziorik ez dela erakusten duen ordenantza
- Haurra haurtzaindegira bila etortzeko baimena duten pertsonen zerrenda (telefono zenbakiarekin eta nortasun agiriaren kopiarekin)
- Funtzionamendu araudia eta harrera kontratua, gurasoek izenpeturik
- Diru kentze automatiko agindua ordainbide hori baldin bada hautatu.